



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2020KO UZTAILAREN 14AN  
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA (TELEMATIKOA)**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Agurtzane Solaberrieta Mesa.

**Zinegotziak:** Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Itziar Basterrika Unanue.

**Idazkaria:** Irantzu Arrizabalaga Gainza.

**Ez dira bertaratu:** Joxe Mari Iribar Zapirain eta Lur Etxeberria Gurrutxaga.

**1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2020/06/30EKO OHIKO BILKURA.**

Batzarkideek, 2020ko ekainaren 30eko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- LERTXUNDI BASERRIAN, ZUBIETA 22 D ETXEBIZITZA ERABERRITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.**

ESP. ZENBAKIA: HZ.04/2020-0083

MIRABELA NICOLE MATEIES IOVAN andereak, Lertxundi baserrian, Zubieta 22 D etxebizitza eraberritzeko udal baimena eskatu du.

<b>OBRAREN EZAUGARRIAK</b>	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	196.944,19 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 2.114,38 € Fidantza (%120): <b>2.537,25 €</b>

**ONDARE ZERBITZUAREN TXOSTENA**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultur Zuzendaritza Nagusiko Ondare Historikoaren Zerbitzuako 2020ko apirilaren 6an helarazi zuen bere txostena. Hitzez hitz honela dio:

**Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentu honetako, Kultura Zuzendari Nagusiak ondoko EBAZPENA eman du gaurko datarekin:**

2020/04/03



Usurbilgo Udala

**GAIA:** Lertxundi baserriko iparmendebaldeko etxebizitza zaharberritzea  
**LEKUA:** Lertxundi baserria  
**HERRIA:** USURBIL  
**ERREGISTRO ZENBAKIA:** 1289/2020   **DATA:** 2020-03-12  
**ESKATZAILEA:** Usurbilgo Udala  
**TITULARRA:** Mirabela Nicole Mateies Iovan  
**ESPEDIENTEA:** 072/2020

Espediente honen bidez, Mirabela Nivole Mateies Iovanek, Usurbilgo Udalaren bitartez, Luis Alberdi arkitektoak idatzirik " Rehabilitación de la vivienda n 22D ubicada en la esquina noroeste del caserío Lertxundi (Usurbil)" exekuzio proiektua aurkeztu du, Foru Aldundiak dagokion txostena egin dezan.

Urtarrilaren 10eko 212012 dekretuaren bitartez Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia Monumetu Multzoa kategoriako Kultur Ondasun gisa sailkatu zen.

Espediente honetako babes arautegian, Usurbilgo Lertxundi baserria babes ertaina duten elementuen zerrendan aurkitzen da.

Eraikin horietan baimendutako esku hartzeek kontserbazio eta funtzionalitatea bermatzea izango dute helburu, eta elementu tipologikoak, formalak, eta egiturazkoak errespetatu beharko dituzte. Babes bereziko erregimenean baimendutako esku hartzeak egin ahal izango dira, bai eta, eraikinek izan dezaketen egoeraren arabera, abenduaren 30eko 31712002 Dekretuak, Ondare Urbanizatua Birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoak, A eta B kategorian arautzen dituen birgaitze kontserbatzaileko obrak ere.

Euskal Kultura Ondarearen 612019 legearen lehenengo xedapen gehigarriaren arabera, EAEko lurralde-eremuan kokatuta dauden eta aldi berean Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 711990 Legearen babespean kulturaondasuntzat jo diren ondasun higigarri eta higiezin guztiak babes bereziko kultura-ondareztat joko dira, baldin eta Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erregistroan sartu badira.

46. artikuluan ezarritakoaren arabera, Hirigintzako baimenak eman baino lehen, nahitaez lortu beharko dira lege honetako 33. artikuluan ezarritako baimenak, eta foru-aldundiei dagokie esku-hartze hauek baimentzea .

Lertxundi baserria balizko eremu arkeologikoan kokaturik dago.

Proiektuaren helburua, baserriaren iparmendebaldean kokatzen den etxebizitzaren zaharberritzea da. Horretarako eraikinaren jatorrizko egurrezko egitura guztia mantentzen da, eta fatxadetan hainbat moldaketa proposatzen dira.

Proiektuak egitura eta barne banaketarekiko proposaturikoak egokiak direla deritzogu. Fatxadetan proposatzen diren bao berriein buruz, hauek ez dituzte ondorengo irizpide orokorrak betetzen:

- Erregulartasun geometriko orokorra. Konposizio ordenatua, ardatz



Usurbilgo Udala

bertikalen inguruan lerrokatutako bao bertikalekin.

- Sistema tradizionalarekin bat datozen eraikitze-piezak imitatzen dituzten xaflaketak debekatuta daude ateburu faltsuetan, leihoetako birmarko eta indargarrietan edo izkinako harlandu iruzurrezkoetan.

Azaldutako guztia kontuan harturik, eta dagokion zerbitzu teknikoek egindako txostena ikusirik, Kultura zuzendari nagusi honek, honako hau,

### **EBATZI DU**

**Lehenengoa.-** Aldeko txostena ematea Mirabela Nicole Mateies Iovanek, Usurbilgo udalaren bitartez, Luis Alberdi arkitektoak idatzirik " Rehabilitación de la vivienda n 22D ubicada en la esquina noroeste del caserío lertxundi (Usurbil)" exekuzio proiektuari buruz luzatu duten eskaerari, beti ere ondorengo baldintzapean:

- Bao berriei dagokionez, eginiko proposamena **ez da egoki** ikusten, hauen inguruko esku hartzea hasi aurretik ondorengo irizpideak betetzen dituen proposamena aurkeztu beharko delarik.
- *Erregulartasun geometriko orokorra. Konposizio ordenatua, ardatz bertikalen inguruan lerrokatutako **bao bertikalekin.***
- *Sistema tradizionalarekin bat datozen eraikitze-piezak imitatzen dituzten xaflaketak debekatuta daude ateburu faltsuetan, **leihoetako birmako eta indargarrietan** edo izkinako harlandu iruzurrezkoetan.*
- Eraikina balizko eremu arkeologi eremuan kokatuta egonik, lanak hasi aurretik dagokion baimen arkeologikoa bideratu beharko da.

**Bigarrena.-** Baimen honek ez du salbuesten lanak egin aurretik derrigorrezkoak diren beste baimenak eskatu behar izatea, eta horiei buruz hartu beharreko erabakiaren edukirik ere ez du aurreiritzen.


Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari. Hortaz, ebazpen honen aurka **GORA JOTZEKO ERREKURTSOA** aurkez diezaioke interesatuek Kultura, Lanekidetzak, Gazteria eta Kirol Departamentuko Foru Diputatuari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita **HILABETEKO** epean. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein aurkez daiteke.

Jakin dezazun eta bidezko ondorioetarako igortzen dizut.

Donostia, 2020ko apirilaren 3ko  
IDAZKARI TEKNIKOA  
Iñaki Sainz Paredes

### TXOSTEN TEKNIKOAK

Aurkeztutako Oinarrizko Proiektua aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren



Usurbilgo Udala

Azkune andereak, ALDEKO txostena eman du.

### KONTROL ARKEOLOGIKOA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko Kultura Zuzendari Nagusiak, 2020ko maiatzaren 20an helarazi du Lertxundi baserrian proiektu arkeologikoa gauzatzeko emandako baimenaren jakinarazpena. Hitzez hitz honela dio:

**Departamentu honetako, Kultura Zuzendari Nagusiak ondoko EBAZPENA eman du gaurko datarekin:**

**2020-05-12**

**GAIA:** kontrol arkeologikoa

**LEKUA:** Lertxundi baserria

**HERRIA:** Usurbil

**INTERESDUNA:** Mirabela Mateies Iovan eta Augustin Egidio Mateies

**ZUZENDARIA:** Alfredo Moraza Barea

**ERREGISTRO ZK:** 1085 **ESPEDIENTE ZK:** 024/2020

Mirabela Mateies Iovan eta Augustin Egidio Mateiesek idatzi bat aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundiaren Departamentu honetako sarrera erregistroan. Idatzi horretan baimena eskatzen da goian aipatzen den proiektu arkeologikoa gauzatzeko Alfredo Moraza Barea arkeologoaren zuzendaritzapean.

Hori guztia ikusirik dagokion txostena eman dute Departamentu honetako zerbitzu teknikoek, eta bertan diote ez dutela eragozpenik ikusten aurkeztutako proiektu arkeologikoa ontzat emateko.

Azaldutako guztia kontuan harturik, eta dagokion zerbitzu teknikoek egindako txostena ikusirik, eta dituen eskumenak erabiliz, Kultura zuzendari nagusi honek, honako hau,

### **EBATZI DU**

**Lehena.-** Baimena ematea Alfredo Moraza Bareari eta bere izenean Mirabela Mateies Iovan eta Augustin Egidio Mateiesi goian aipaturiko proiektu arkeologikoa gauzatzeko. Hala izango da Euskal Kultura Ondareko 6/2019 Legearen 66.1 artikulua ezartzen duena betetzeko, zuzendaritza nagusi honen esku dagoen arloan, eta beti ere, jarraian aipatzen diren honako baldintza hauek betetzen badira:

- Lanen hasiera eta amaiera GFA-ko Departamentu honi jakinarazi beharko zaio. Hasiera astebeteko aurrerapenarekin gutxienez eta amaiera aste bete pasa ondoren gehienez.
- Baimen honi dagokion txostena paperean eta formatu informatikoan (Word, Pdf) aurkeztu beharko da bere garaian.
- Baimenaren titularrak berak zuzendu beharko ditu jarduera



Usurbilgo Udala

arkeologikoak eta jarduera horiek bertatik bertara ikusi beharko ditu. Baldin eta, justifikatutako arrazoiak direla medio, titularrak jarduerak bertatik bertara zuzentzea ezinezkoa badu, horren berri eman beharko dio kasuan kasuko GFAko Departamentu honi eta bere erantzukizuna beste pertsona baten esku utzi beharko du, zeinak titularra ez dagoenean jardueren zuzendaritza bere gain hartzeko zenbait baldintza bete beharko baititu, titulazioari, gaitasun profesionalari eta behar besteko ezagutzari dagokienez.

- Baimenaren onuradunak baimena ematen du berak egindako oroitidazki zientifikoa Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Arkeologia Artxiboan egon dadin baita ere Foru Aldundiaren Web orrian eskegita edonork kontsulta ahal dezan.
- Baimenaren onuradunak baimena ematen dio GFA-ri Kultura Zuzendaritza Nagusiari aurkeztu dion materiala zabalkunde lanetarako erabili ahal dezan. Nolanahi ere, argazkien egilea edo jatorria.

**Bigarrena.-** Arkeologi zundaketaren ondorioz aparteko aztarna arkeologikorik azalduz gero, berehala berri emango zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Departamentu honi, bidezko izanez gero, beharrezkoak suertatzen diren neurriak hartu ditzan.

**Hirugarrena.-** Baimen hau hirugarrenen kalterik gabekoa da, eta ez du salbuesten lanak egin aurretik derrigorrezkoak diren beste baimenak eskatu behar izatea, ezta bere edukia aurreikusten.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari. Hortaz, ebazpen honen aurka GORA JOTZEKO ERREKURTSOA aurkez diezaioke interesatuek Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko Foru Diputatuari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita HILABETEKO apean. Dena dela, egoki derirotzen beste edozein aurkez daiteke.

Jakin dezazun eta bidezko ondorioetarako igortzen dizut.

Donostia, 2020ko maiatzaren 12a  
IDAZKARI TEKNIKOA  
Iñaki Sainz Paredes

Gauzak horrela, udal teknikarien txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** MIRABELA NICOLE MATEIES IOVAN andereak, Lertxundi baserrian, Zubieta 22 D etxebizitza eraberritzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Luis Alberdi Sudupe arkitektoak 2020ko otsailean idatzitako Exekuzio Proiektuari



Usurbilgo Udala

eta 2020 maiatzean idatzitako dokumentazio osagarriari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.

- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO KULTURA, TURISMO, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUKO KULTURA ZUZENDARI NAGUSIAK LERTXUNDI BASERRIKO ONDAREA BABESTEKO EMANDAKO EBAZPENAN EZARRITAKO BALDINTZAK BETE BEHARKO DIRA.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko Kultura Zuzendari Nagusiak proiektu arkeologikoa gauzatzeko emandako baimenean zehaztutako baldintzak bete beharko dira.
- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean:**

Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 2.114,38 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (2.537,25 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

**2.537,25 €-ko fidantza**, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: HZ.04/2020-0083*” jarriaz kontzeptuan.

- Ezinbestean indarrean dagoen araudia bete beharko da. Exekuzio Proiektuan aztertutako dira zehatzago EKT, RITE eta gainontzeko araudi teknikoaren betekizunak.
- 68/2000 Sar-irten erraztasunari buruzko Dekretuak ezarritakoak bete beharko dira.
- AASS-etako Egoitzazko Eraikuntzen Ordenantzak bete beharko dira.
- Obra burutzeko zoru publikoan aldamiok edo kontainerra jarri behar izanez gero, udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.
- Obra baimenaren epeak:
  - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obraren egikaritze epe gehiengoa: 2 urte.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo



Usurbilgo Udala

dokumentuz lagundurik:

- Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
- Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.

- Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.

- Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozeela adieraziz.
- Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
- Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik elektrairindarraren hornikuntza sareko loturako buletinaren eta kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako instalazioari dagokion egokitasun egiaztagiriaren kopia. Era berean, ur hornikuntzaren Industria Delegazioak izenpeturiko buletina aurkeztuko da.

- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
  - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
  - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
  - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
  - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabeko segurtasun neurriak beteko dira.
  - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.



Usurbilgo Udala

### **3.- 2020AN GIZARTE ZERBITZUEN ARLOAN EGITASMOAK BURUTZEKO BEHIN BETIKO DIRULAGUNTZA KOPURUAK ONARTZEA.**

Esp. Zkia.: GZ.42/2019-0466

#### **Ikusirik**

2020ko urtarrilaren 7an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2020. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko dirulaguntzen oinarriak argitaratu ziren, eskaerak aurkezteko hogei eguneko epea emanez, hau 2020ko otsailaren 4ean bukatu zelarik.

Epea amaitu ondoren, guztira 14 elkarte izan dira dirulaguntza eskaera aurkeztu dutenak, iaz aurkeztutako elkarte kopurua baino 3 gehiago.

Eskaerak aztertu ondoren, 10 elkartek osatu gabe aurkeztu zuten eskaera. Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen oinarrietan zehazten den moduan, interesatuei hamar eguneko epea eman zitzaien falta zen dokumentazioa aurkezteko.

Aipatutako taldeak eskatutako dokumentazioa epe barruan aurkeztu zuten.

2020ko ekainaren 2ko bilkuran Diru laguntzen Batzorde Orokorrak, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako teknikariaren txostena kontutan harturik, ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

Hori horrela, 2020ko uztailaren 13an ospatutako Ezohiko Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzorde informatiboan, 2020. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko dirulaguntzen banaketa proposamenaren berri eman zen.

#### **Eta kontutan harturik**


1. Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
2. Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
3. Usurbilgo Udaleko 2020-2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (GAO 2020-01-22).
4. 2020an Gizarte Zerbitzuen Arloan egitasmoak garatzeko dirulaguntza oinarriak (GAO, 2020-01-07)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **ERABAKIA**

**LEHENENGOA:** 2020. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko dirulaguntza kopuru hauek onartzea.





Usurbilgo Udala

TALDEAREN IZENA	ONARTUTAKO LAGUNTZA % 100	1. ORDAINKETA %50
1. <b>ADEMGI</b> (Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren elkarte) (Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren elkarte)	347,60 €	173,80 €
2. <b>AECC</b> (Minbiziaren aurkako elkarte) (Minbiziaren aurkako elkarte)	375,00 €	187,50 €
3. <b>AGIAC</b> (Gipuzkoako antikoagulatuek elkarte) (Gipuzkoako antikoagulatuek elkarte)	632,01 €	316,00 €
4. <b>AGI</b> (Gipuzkoako Ikusmen Urria dutenen elkarte) (Gipuzkoako Ikusmen Urria dutenen elkarte)	916,41 €	458,20 €
5. <b>AGIFES</b> (Buru eritasuna duten pertsonen familien elkarte) (Buru eritasuna duten pertsonen familien elkarte)	790,01 €	395,00 €
6. <b>AGIPASE</b> (Krisi egoeran dauden Gipuzkoako familiei laguntzeko elkarte) (Krisi egoeran dauden Gipuzkoako familiei laguntzeko elkarte)	916,41 €	458,20 €
7. <b>ALCER</b> (Giltzurruneko gaixotasuna duten pertsonen Gipuzkoako elkarte) (Giltzurruneko gaixotasuna duten pertsonen Gipuzkoako elkarte)	884,81 €	442,40 €
8. <b>ATECE</b> (Traumatismo Kraneo-enzefalikoa eta burmuineko kaltea duten pertsonen Gipuzkoako elkarte) (Traumatismo Kraneo-enzefalikoa eta burmuineko kaltea duten pertsonen Gipuzkoako elkarte)	726,81 €	363,40 €
9. <b>ATZEGI</b> (Adimen urritasuna duten eta bere familien bizi kalitatea hobetzeko elkarte) (Adimen urritasuna duten eta bere familien bizi kalitatea hobetzeko elkarte)	1.264,02 €	632,01 €
10. <b>IZAN FUNDAZIOA</b> (Gizabanakoa droga mendetasunaren aurrean babesteko elkarte) (Gizabanakoa droga mendetasunaren aurrean babesteko elkarte)	1.106,01 €	553,00 €
11. <b>GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA</b>	750,00 €	375,00 €
12. <b>GIPUZKOAKO ITXAROPEN TELEFONOA</b>	1.300,00 €	650,00 €
13. <b>ORTZADAR ELKARTEA</b> (Adimen urritasun ertaina eta arina duten pertsonen zuzendua) (Adimen urritasun ertaina eta arina duten pertsonen zuzendua)	948,01 €	474,00 €
14. <b>PAUSOKA</b> (Behar bereziak dituzten haurren guraso elkarte) (Behar bereziak dituzten haurren guraso elkarte)	1.042,81 €	521,40 €

**BIGARRENA:** Dirulaguntzen lehen ordainketa egitea, %50a.

**HIRUGARRENA:** Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatuz bideratuko dira egitasmo guztiak.

**LAUGARRENA:** Hondakinei dagokienez, Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloak jasotakoak beteko dira.

**BOSGARRENA:** Aurrikusitako gastua baino txikiagoa egiten bada, dirua itzuli egin beharko da.

**SEIGARRENA:** Udalak diruz laguntzen dituen ekintzak usurbildar guztiei irekiak izango dira, herritarren artean inolako bereizketarik egin gabe.



Usurbilgo Udala

**ZAZPIGARRENA:** Dirulaguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da diru-laguntzarik emango.

**ZORTZIGARRENA:** Jasotako dirulaguntza zuritzeko azken eguna 2021ko urtarrilaren 11a izango da.

**BEDERATZIGARRENA:** Dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.8000.481.231.03.02.2020 (2919) Dirulag: Irekiak: Elkarteen asmoak (A 373-2020)

**HAMARGARRENA:** Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

**HAMAIKAGARRENA:** Udaleko iragarki taulan eta [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) web orrian ere behin betiko ebazpenaren berri emango da.

**HAMABIGARRENA:** Kontu-hartzaitzari akordioaren berri ematea, ordainketa egiteko orria erantsiz.

#### **4.- DESERROTZE ETA BAZTERTZE SOZIALEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN SENIDEEI ERANTZUTEKO 2020KO BEHIN BETIKO DIRULAGUNTZA KOPURUAK ONARTZEA.**

Esp. Zkia.: GZ.42/ 2019-0470

2020ko urtarrilaren 7an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko 2020. urteko dirulaguntzen oinarriak argitaratu ziren, eskaerak aurkezteko hogeiei eguneko epea emanez, hau 2020ko otsailaren 4an bukatu zelarik.

Epea amaitu ondoren, dirulaguntza eskaera bat aurkeztu da.

2020ko ekainaren 2ko bilkuran Diru laguntzen Batzorde Orokorrak, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako teknikariaren txostena kontutan harturik, ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

Hori horrela, 2020ko uztailaren 13an ospatutako Ezohiko Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzorde informatiboan, Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko 2020ko dirulaguntzen banaketa proposamenaren berri eman zen.

#### **Eta kontutan harturik**

1. Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.
2. Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO 2008-07-01).
3. Usurbilgo Udaleko 2020-2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (GAO 2020-01-22).



Usurbilgo Udala

4. Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko 2020. urteko dirulaguntzen oinarriak (GAO, 2020-01-07)

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENENGOA:** Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko 2020. urteko dirulaguntza kopuru hauek onartzea:

Maria Carmen ANZA SUBERBIOLA	4.259,52 €
------------------------------	------------

**BIGARRENA:** Dirulaguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da dirulaguntzarik emango.

**HIRUGARRENA:** Dirulaguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.8000.480.231.03.03.2020 (A 371-2020)

**LAUGARRENA:** Ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

**BOSGARRENA:** Udaleko iragarki taulan eta [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) web orrian ere behin betiko ebazpenaren berri emango da.

**SEIGARRENA:** Kontu-hartzaitzari akordioaren berri ematea, ordainketa egiteko orria erantsiz.

## 5.- 2020AN KIROL JARDUERAK BURUTZEKO BEHIN BETIKO DIRULAGUNTZA KOPURUAK ONARTZEA.

### Ikusirik


Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, urtarrilaren 7an 2020ko kirol egitasmoak burutzeko dirulaguntza oinarriak argitaratu ziren eskaerak aurkezteko 20 eguneko epea emanez.

Epea 2020ko otsailaren 4ean amaitu ondoren, Kirol taldeen Ohiko dirulaguntza lerroari dagokion eskaerak hauek izan dira:

- 1.- Kirol-taldeen ohiko diru-laguntza zuzenatarako 10 eskaera jaso dira.

Oinarrietako 6. Artikuluan zehaztutakoaren arabera kirol teknikariak, eskaerak aztertu ostean, dagokion txostena egin zuen eta 2020ko kirol egitasmoak burutzeko diru-laguntzen proposamenaren berri eman zen.

Ondoren, 2020ko ekainaren 2ko bilkuran Dirulaguntzen Batzorde Orokorrek ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko.



Usurbilgo Udala

Ekainaren 30ean amaitu da alegazioak aurkezteko epea, eta epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO 2008/07/01).
- 2020an kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2020/01/07).
- Usurbilgo Udaleko 2020-2023ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **E R A B A K I A**

**Lehenengoa:** 2020ko 1. lerroko Kirol taldeen ohiko kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza kopuru hauek onartzea.

	denera	1.zatia %50a
<b>Tximeleta</b>	1.934,93 €	967,47
<b>Baxurde txiki</b>	1.966,88 €	983,44
<b>Bazpi</b>	2.389,21 €	1.194,61
<b>Beterri Sub</b>	427,76 €	213,88
<b>Usurbil FT</b>	10.716,79 €	5.358,39
<b>Usurbil JC</b>	9.390,47 €	4.695,23
<b>Makax</b>	1.207,41 €	603,70
<b>Pagazpe</b>	2.968,81 €	1.484,40
<b>Usurbil KE</b>	16.532,09 €	8.266,05
<b>Zubieta PE</b>	2.465,64 €	1.232,82
	<u>50000</u>	<u>25000</u>

**Bigarrena:** Diru-laguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da diru-laguntzarik emango.

**Hirugarrena:** Diru laguntzen lehen ordainketa egitea, %50a.

**Laugarrena:** Gainerako %50a, eman deneko diru-laguntza justifikatu ondoren ordainduko da.

**Bostgarrena:** Denboraldika zuritzekoa dutenentzat, zuritzeko azken eguna 2020ko irailaren 26a izango da eta gainontzekoentzat azken eguna 2021eko urtarrilaren 23a izango da.

**Seigarrena:** Gastua aurrekontu-partida hauen kargura joango dira:

1 4300 481 341 00 01 Kirol tadeen ohiko diru-laguntza zuzenak (A 2-2020)



Usurbilgo Udala

**Zazpigarrena:** Kontu-hartzaileari akordioaren berri ematea.

## **6.- 2020AN KIROL EGOKITUKO JARDUERAK BURUTZEKO BEHIN BETIKO DIRULAGUNTZA KOPURUAK ONARTZEA.**

### **Ikusirik**

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, urtarrilaren 7an 2020ko kirol egitasmoak burutzeko diru laguntza oinarriak argitaratu ziren eskaerak aurkezteko 20 eguneko epea emanez.

Epea 2020ko otsailaren 4ean amaitu ondoren, Kirol egokituko jardueretarako lerroari dagokion eskaerak hauek izan dira:

#### 3.- Kirol egokituko jardueretako eskaera bat jaso da

Oinarrietako 6. Artikuluan zehaztutakoaren arabera kirol teknikariak, eskaerak aztertu ostean, dagokion txostena egin zuen eta 2020ko kirol egitasmoak burutzeko diru-laguntzen proposamenaren berri eman zen.

Ondoren, 2020ko ekainaren 2ko bilkuran Diru laguntzen Batzorde Orokorrek ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaizen alegazioak aurkezteko.

Ekainaren 30ean amaitu da alegazioak aurkezteko epea, eta epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO 2008/07/01).
- 2020an kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2020/01/07).
- Usurbilgo Udaleko 2020-2023ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## **ERABAKIA**

**Lehenengoa:** 2020ko 3, lerroko ohiko kirol egokituko egitasmoak garatzeko diru-laguntza kopuru hauek onartzea.

Ohiko ekintzetarako:

Pagazpe Pilota Elkartea                      2.827,20€ (%50 1.413,60€)

**Bigarrena:** Diru-laguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da diru-laguntzarik emango.



Usurbilgo Udala

**Hirugarrena:** Diru laguntzen lehen ordainketa egitea, %50a.

**Laugarrena:** Gainerako %50a, eman deneko diru-laguntza justifikatu ondoren ordainduko da.

**Bostgarrena:** Denboraldika zuritzekoa dutenentzat, zuritzeko azken eguna 2020ko irailaren 26a izango da eta gainontzekoentzat azken eguna 2021eko urtarrilaren 23a izango da.

**Seigarrena:** Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango dira:

1.4300.481.341.00.06 Kirol egokitua (A 4-2020)

**Zazpigarrena:** Kontu-hartzaileari akordioaren berri ematea.

## **7.- 2020AN KIROL ELKARTEENAK EZ DIREN KIROL JARDUERAK BURUTZEKO BEHIN BETIKO DIRULAGUNTZA KOPURUAK ONARTZEA.**

### **Ikusirik**

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, urtarrilaren 7an 2020ko kirol egitasmoak burutzeko diru laguntza oinarriak argitaratu ziren eskaerak aurkezteko 20 eguneko epea emanaz.

Epea 2020ko otsailaren 4ean amaitu ondoren, Kirol elkarte ez direnen kirol jardueretako dirulaguntza lerroari dagozkion eskaerak hauek izan dira:

4.- Kirol elkarte ez direnen kirol jardueretako bi eskaera jaso dira.

Oinarrietako 6. Artikuluan zehaztutakoaren arabera kirol teknikariak, eskaerak aztertu ostean, dagokion txostena egin zuen eta 2020ko kirol egitasmoak burutzeko diru-laguntzen proposamenaren berri eman zen.


Ondoren, 2020ko ekainaren 2ko bilkuran Diru laguntzen Batzorde Orokorrek ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaizen alegazioak aurkezteko.

Ekainaren 30ean amaitu da alegazioak aurkezteko epea, eta epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO 2008/07/01).
- 2020an kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2020/01/07).
- Usurbilgo Udaleko 2020-2023ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

## ERABAKIA

**Lehenengoa:** 2020ko 4. lerroko Kirol Elkarteak ez direnen kirol jardueretarako diru-laguntza kopuru hauek onartzea.

2020	proposamena	1.zatia %50a
Einean Guraso Elkarteak	192,00 €	96,00 €
<b>San Praixku Guraso Elkarteak</b>	600,00 €	300,00 €
	792,00 €	396,00 €

**Bigarrena:** Diru-laguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da diru-laguntzarik emango.

**Hirugarrena:** Diru laguntzen lehen ordainketa egitea, %50a.

**Laugarrena:** Gainerako %50a, eman deneko diru-laguntza justifikatu ondoren ordainduko da.

**Bostgarrena:** Denboraldika zuritzekoa dutenentzat, zuritzeko azken eguna 2020ko irailaren 26a izango da eta gainontzekoentzat azken eguna 2021eko urtarrilaren 23a izango da.

**Seigarrena:** Gastua aurrekontu-partida hauen kargura joango dira:

1.4300.481.341.00.07 Kirol elkarte ez direnen kirol jarduerak (A 5-2020)

**Zazpigarrena:** Kontu-hartzaileari akordioaren berri ematea.

## 8.- INGURUMEN ARLOKO EGITASMOAK BURUTZEKO BEHIN BETIKO DIRULAGUNTZA KOPURUAK ONARTZEA.

Esp. Zenbakia: HZ.06/2020-0010

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko urtarrilaren 29eko bilkuran, besteren artean ingurumen arloko egitasmoak burutzeko 2020ko diru-laguntza oinarriak onartzea erabaki zuen.

Oinarrien testu osoa, 2020ko urtarrilaren 7an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 3. zenbakian, diru-laguntzak aurkezteko epealdia zabalduz. Bertan, hoguei laneguneko epea ematen zaie interesatuei diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten.

Hamahiru eskatzaile aurkeztu dira:

1. Felix Olaetxea Arraiago
2. Amaia Martiarena Lamuedra
3. Amaya Reguera Sebastian



Usurbilgo Udala

4. Ainara Zapiain Altuna
5. Anerreka Ingurumen Elkarte
6. Garazi Lizaso Manterola
7. Arkaitz Rezola Mendikute
8. Maria Pilar Antonia Manterola Aizpurua
9. Itxaso Muguruza Bellosillo
10. Iñigo Villafafila Eizagirre
11. Ignacio Aguirre Amorena
12. Jokin Rezola Mendikute
13. Gemma Roldan Cantero

Oinarrietako 13. artikuluan zehaztutakoaren arabera Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak, eskaerak aztertu ostean, dagokion txostena egin du.

Oinarrietako 13. artikuluan zehaztutakoaren arabera Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak egindako txostena Nekazaritza eta Ingurumen Batzordera eramango da. 2020ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak egindako txostenaren berri emango zaio Nekazaritza eta Ingurumen Batzordeari.

Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak 2020ko ekainaren 2an egindako bilkuran, zegokion ebazpen-proposamena egin zuen. Oinarriek zehaztutakoaren arabera, ebazpen-proposamena jendaurrean jarri zen 10 egunez. Iragarkia 2020ko ekainaren 16an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 112. zenbakian. Jendaurreko epealdian ez da inolako alegaziorik izan.


Guzti hau kontutan izanik, Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak egindako proposamena ezaguturik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** Ingurumen arloko egitasmoak burutzeko 2020an ondoko diru-laguntzak **onartzea:**

Interesatua	Ekintza	Babestutako aurrekontua	Diru-laguntza
Felix Olaetxea Arraiago	Ontzigarbigailu eta hozkailua	1.154,00 €	380,00 €
Amaia Martiarena Lamuedra	Garbigailua eta hozkailua	1.265,99 €	417,00 €
Amaya Reguera Sebastian	Ontzigarbigailua, hozkailua eta garbigailua	2.605,00 €	857,00 €
Ainara Zapiain Altuna	Garbigailua, sukaldea eta labea	2.325,00 €	765,00 €
Anerreka ingurumen elkarte	Isurketak monitorizatzeko tresnak	541,97 €	178,00 €
Garazi Lizaso Manterola	Hozkailua eta izozgailu berriak erostea	1.159,42 €	382,00 €
Arkaitz Rezola Mendikute	Extraktorea eta ontzigarbigailua	1.958,99 €	645,00 €





Usurbilgo Udala

Maria Pilar Antonia Manterola Aizpurua	Etxeko isolamendua, Led argiak	550,00 €	181,00 €
Iñigo Villafafila Eizagirre	Labe bat erostea	620,00 €	204,00 €
Ignacio Aguirre Amorena	PVC leihoak eta Led argiteria	2.911,49 €	958,00 €
Jokin Rezola Mendikute	Hornitzaile berriztagarria (Goienar)	100,00 €	33,00 €

**BIGARRENA:** Oinarrietako 3. eranskineko 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, onartutako diru-laguntzen % 100a ordaintzeko agintzea Kontuhartzaitetzari, 1-6100-480-172-00-01-2020 aurrekontu partidatik:

Interesatua	Ekintza	Babestutako aurrekontua	Diru-laguntza
Felix Olaetxea Arraiago	Ontzigarbigailu eta hozkailua	1.154,00 €	380,00 €
Amaia Martiarena Lamuedra	Garbigailua eta hozkailua	1.265,99 €	417,00 €
Amaya Reguera Sebastian	Ontzigarbigailua, hozkailua eta garbigailua	2.605,00 €	857,00 €
Ainara Zapiain Altuna	Garbigailua, sukaldea eta labea	2.325,00 €	765,00 €
Anerreka ingurumen elkarte	Isurketak monitorizatzeko tresnak	541,97 €	178,00 €
Garazi Lizaso Manterola	Hozkailua eta izozgailu berriak erostea	1.159,42 €	382,00 €
Arkaitz Rezola Mendikute	Extraktorea eta ontzigarbigailua	1.958,99 €	645,00 €
Maria Pilar Antonia Manterola Aizpurua	Etxeko isolamendua, Led argiak	550,00 €	181,00 €
Iñigo Villafafila Eizagirre	Labe bat erostea	620,00 €	204,00 €
Ignacio Aguirre Amorena	PVC leihoak eta Led argiteria	2.911,49 €	958,00 €
Jokin Rezola Mendikute	Hornitzaile berriztagarria (Goienar)	100,00 €	33,00 €

**HIRUGARRENA:** Ingurumen arloko egitasmoak burutzeko 2020an ondoko diru-laguntza eskaerak **batertzea:**

Interesatua	Ekintza	Arrazoia
Itxaso Muguruza Bellosillo	Ontzigarbigailua eta Labea	Egitasmoa ez da garatu 2019an
Gemma Roldan Cantero	Konposteko zizare haztegia	Ekintza ez da babesgarria

**LAUGARRENA:** Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatuz bideratuko



Usurbilgo Udala

dira ekintza guztiak.

**BOSGARRENA:** Diru-laguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da diru-laguntzarik emango.

**SEIGARRENA:** Oinarrietako 19. artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradunek ondoko beteharrak bete beharko dituzte:

- a) Dirulaguntza emateko eskatzen den jarduera egitea edo eskatutako jokabide hori izatea.
- b) Jarduera egiten ari dela frogatzea. orobat, laguntza emateko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzea.
- c) Diruz lagundutako jarduera betetzeko baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.
- d) Dirulaguntza eskaini duen Usurbilgo Udalak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trabarik ez jartzea, ez eta esku-hartzaitzari dagozkion finantza-kontroleko jarduketei, Herri kontuen euskal epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei ere.
- e) Beste administrazio edo erakunde batzuetatik (publiko nahiz pribatuetatik, estatuko nahiz nazioartekoetatik) helburu berbererako beste dirulaguntzarik jasotzen bada, dirulaguntza eskaini duen organoari horren berri ematea.
- f) Dirulaguntza eskaintzeko garaian kontuan hartutako atalen batean aldaketarik gertatuz gero (objektiboa nahiz subjektiboa izan), dirulaguntza eskaini duen organoa aldaketa horren jakinaren gainean jartzea eta beronen onespena izatea.
- g) Indarrean dauden xedapenen arabera Gizarte Segurantzaren eta ogasun Publikoaren aurrean dituzten betebeharrak ezagutzea, Usurbilgo Udalak ezarritakoak barne.

Horretarako, eskatzaileek idatzizko aitorpenean adieraziko dute Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunera dagoela edo ogasun arloko betebeharrak betetzen dituela.

Bestalde, udal betebeharrei dagokienez, udalak berak ofizioz, dagozkion ziurtagiriak eskura ditzake.

- h) Diruz lagundutako ekintzek herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dituzte.

Era berean, diruz lagundutako jarduerak aintzakotzat hartuko ditu euskararen Udal ordenantza, Usurbilgo Udalaren euskararen erabilera Plana, UEMaren



Usurbilgo Udala

hizkuntza irizpideak, gainerako araudia eta Usurbilgo herriaren errealitate soziolinguistikoa.

- i) Diruz lagundutako jardueretan eta jardueren iragarpenean hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatu behar da, Pertsonen irudiak erabiltzekotan, emakumeen eta gizonen presentzia modu orekatuan eta ez estereotipatuan islatu behar da, 4/2005 emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legeak agintzen duen modura. Berdintasun-betebehar hori betetzen duela frogatu beharko du onuradunak argitaratutako iragarki, ohar, jakinarazpen eta abarretan.

Datu bilketetan sistematikoki sexu aldagaia txertatua behar du.

- j) Ekintzei lotutako publizitatean Usurbilgo Udala babesletzat adierazi beharko da, udalaren logoa erantsiz.
- k) Dirulaguntza gai diren ekintzak bideratzerakoan, hondakinei dagokienez Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloak jasotakoak beteko dira.
- l) Usurbilgo Udalak lagundutako egitasmoetan sortutako euskarriei (paperezkoak zein digitalak) herri intereseko erabilera eman ahal izango zaie.

**ZAZPIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuei eta Kontuhartzaileari emango zaio.

## **9.- NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO EGITASMOAK BURUTZEKO BEHIN BETIKO DIRULAGUNTZA KOPURUAK ONARTZEA.**


Esp. Zenbakia: HZ.06/2020-0009

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko abenduaren 10eko bilkuran, besteren artean nekazaritza eta abeltzaintza arloko egitasmoak burutzeko 2020ko diru-laguntza oinarriak onartzea erabaki zuen.

Oinarrien testu osoa, 2020ko urtarrilaren 7an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 3. zenbakian, diru-laguntzak aurkezteko epealdia zabalduz. Bertan, hogeitanehuneko epea ematen zaie interesatuei diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten.

Zortzi eskatzaile aurkeztu dira:

1. Alkartasuna kooperatiba
2. Juan Miguel Olagoy Arregui
3. Joxe Mari Zubimendi Urdanpilleta
4. Arkaitz Portularrume Unanue
5. Jexux Agirresarobe Arzallus
6. Basatxerri



Usurbilgo Udala

7. Alkartasun Kooperatiba
8. Maria Dolores Goenaga Iribar
9. Maria Pilar Arroyo Iruretagoiena

Oinarrietako 13. artikuluan zehaztutakoaren arabera Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak, eskaerak aztertu ostean, dagokion txostena egin du.

Oinarrietako 13. artikuluan zehaztutakoaren arabera Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak egindako txostena Nekazaritza eta Ingurumen Batzordera eramango da. 2020ko martxoaren 9an egindako bilkuran, Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak egindako txostenaren berri emango zaio Nekazaritza eta Ingurumen Batzordeari.

Diru-laguntzen Batzorde Orokorrek 2020ko ekainaren 2an egindako bilkuran, zegokion ebazpen-proposamena egin zuen. Oinarriek zehaztutakoaren arabera, ebazpen-proposamena jendaurrean jarri zen 10 egunez. Iragarkia 2020ko ekainaren 15ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 111. zenbakian. Jendaurreko epealdian ez da inolako alegaziorik izan.

Guzti hau kontutan izanik, Diru-laguntzen Batzorde Orokorrek egindako proposamena ezaguturik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** Nekazaritza eta abeltzaintza arloko egitasmoak burutzeko 2020an ondoko diru-laguntzak **onartzea**:

Interesatua	Ekintza	Babestutako aurrekontua	Diru-laguntza
Juan Miguel Olagoy Arregui	Hildako animaliak	69,50 €	<b>34,75 €</b>
Joxe Mari Zubimendi	Etxeberri Txikiko lurrak mantentzeko makinaria	1.789,11 €	<b>894,56 €</b>
Arkaitz Portularrume	Negutegiko plastikoak berritzea	1.046,87 €	<b>523,44 €</b>
Jexux Agirresarobe	Ustiatetikoko konponketak eta hildako animaliak	2.421,42 €	<b>1.210,71 €</b>
Basatxerri	Hildako animalien gastuak	1.203,42 €	<b>601,71 €</b>
Alkartasuna kooperatiba	Hitzaldiak antolatzekeo dirulaguntza	388,25 €	<b>194,13 €</b>
Maria Dolores Goenaga Iribar	Basurdeak ez sartzeko itxitura berritzea	1.454,73 €	<b>727,37 €</b>
Maria Pilar Arroyo Iruretagoiena	Hildako animaliak	34,75 €	<b>17,38 €</b>

**BIGARRENA:** Oinarrietako 6. eranskineko 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, onartutako diru-laguntzen % 100a ordaintzeko agintzea Kontuhartzaitzari, 1-6200-481-412-00-03-2020 aurrekontu partidatik:



Usurbilgo Udala

Interesatua	Ekintza	Babestutako aurrekontua	Diru-laguntza
Juan Miguel Olagoy Arregui	Hildako animaliak	69,50 €	<b>34,75 €</b>
Joxe Mari Zubimendi	Etxeberri Txikiko lurrak mantentzeko makinaria	1.789,11 €	<b>894,56 €</b>
Arkaitz Portularume	Negutegiko plastikoak berritzea	1.046,87 €	<b>523,44 €</b>
Jexux Agirresarobe	Ustiattegiko konponketak eta hildako animaliak	2.421,42 €	<b>1.210,71 €</b>
Basatxerri	Hildako animalien gastuak	1.203,42 €	<b>601,71 €</b>
Alkartasuna kooperatiba	Hitzaldiak antolatzeko dirulaguntza	388,25 €	<b>194,13 €</b>
Maria Dolores Goenaga Iribar	Basurdeak ez sartzeko itxitura berritzea	1.454,73 €	<b>727,37 €</b>
Maria Pilar Arroyo Iruretagoiena	Hildako animaliak	34,75 €	<b>17,38 €</b>

**HIRUGARRENA:** Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatuz bideratuko dira ekintza guztiak.

**LAUGARRENA:** Diru-laguntza ordaintzerakoan udalarekin zorra dagoen kasuetan, ez da diru-laguntzarik emango.

**BOSGARRENA:** Oinarrietako 19. artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradunek ondoko beteharrak bete beharko dituzte:

- Dirulaguntza emateko eskatzen den jarduera egitea edo eskatutako jokabide hori izatea.
- Jarduera egiten ari dela frogatzea. orobat, laguntza emateko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzea.
- Diruz lagundutako jarduera betetzeko baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.
- Dirulaguntza eskaini duen Usurbilgo Udalak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trabarik ez jartzea, ez eta esku-hartzaitzari dagozkion finantza-kontroleko jarduketei, Herri kontuen euskal epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei ere.
- Beste administrazio edo erakunde batzuetatik (publiko nahiz pribatuetatik, estatuko nahiz nazioartekoetatik) helburu berbererako beste dirulaguntzarik jasotzen bada, dirulaguntza eskaini duen organoari horren berri ematea.
- Dirulaguntza eskaintzeko garaian kontuan hartutako atalen batean aldaketarik



Usurbilgo Udala

gertatuz gero (objektiboa nahiz subjektiboa izan), dirulaguntza eskaini duen organoa aldaketa horren jakinaren gainean jartzea eta beronen onespena izatea.

- g) Indarrean dauden xedapenen arabera Gizarte Segurantzaren eta ogasun Publikoaren aurrean dituzten betebeharrak ezagutzea, Usurbilgo Udalak ezarritakoak barne.

Horretarako, eskatzaileek idatzizko aitorpenean adieraziko dute Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunera dagoela edo ogasun arloko betebeharrak betetzen dituela.

Bestalde, udal betebeharrari dagokienez, udalak berak ofizioz, dagozkion ziurtagiriak eskura ditzake.

- h) Diruz lagundutako ekintzek herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dituzte.

Era berean, diruz lagundutako jarduerak aintzakotzat hartuko ditu euskararen Udal ordenantza, Usurbilgo Udalaren euskararen erabilera Plana, UEMaren hizkuntza irizpideak, gainerako araudia eta Usurbilgo herriaren errealitate soziolinguistikoa.

- i) Diruz lagundutako jardueretan eta jardueren iragarpenean hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatu behar da, Pertsonen irudiak erabiltzekotan, emakumeen eta gizonen presentzia modu orekatuan eta ez estereotipatuan islatu behar da, 4/2005 emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legeak agintzen duen modura. Berdintasun-betebehar hori betetzen duela frogatu beharko du onuradunak argitaratutako iragarki, ohar, jakinarazpen eta abarretan.

Datu bilketetan sistematikoki sexu aldagaia txertatua behar du.

- j) Ekintzei lotutako publizitatean Usurbilgo Udala babesletzat adierazi beharko da, udalaren logoa erantsiz.
- k) Dirulaguntza gai diren ekintzak bideratzerakoan, hondakinei dagokienez Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloak jasotakoak beteko dira.
- l) Usurbilgo Udalak lagundutako egitasmoetan sortutako euskarriei (paperezkoak zein digitalak) herri intereseko erabilera eman ahal izango zaie.

**SEIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuei eta Kontuhartzaileari emango zaio.

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:50etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**